

## **MONTOIA, Xabier. *Denboraren izerdia.***

Elkar argitaletxea. Donostia, 2003ko martxoa. 221 orrialde

**Ainhoa AROZENA**

Jon Ezenarro Madrilen bizi den zinemagilea da. Berriki *Libertad* deituriko filma aurkeztu dute. Euskal Herriaren egoera politikoaren ikuspegi bat agertzen da bertan, eta arrakasta handia lortu du lan taldeak Madrilen. Filmaren egileak aurkezpenez aurkezpen dabilta, festaz festa. Alkoholak eta gainerako drogek pisu handia dute ekitaldiak amaitu ondorengo jaietan. Zer esanik ez sexuak.

Jon protagonista laster batean ezkontzeko asmotan bada ere, badu maitale bat. Protagoistaren ustez ezkondu eta ondorengo harremanak ez baitu aurrera egingo, maitaleren bat alboan eduki gabe. Jonek, beraz, Ana ezkongai eta Maribel maitalea biak izan arren, jai batean aspaldidanik ezagutzen duen Itziar kazetariarekin sexu jolasak izango ditu. Harreman horrekin benetan gustura sentitu ez eta, Mari-belekin emango dio gauari amaiera. Kazetaria Jonen jokaeraz ohar-tzen denean, Jonek kostata ahaztuko duen bengantza jarriko du martxan Maribelek. *El Mundo* egunkarian idatzitako iritzi artikulu batean, Jon eta filma osatu duten beste hainbat euskaldunen iragana azalduko du, ETA erakundeko kide izan zirela, alegia. Madrilen eta Jonen inguruko pertsonen artean izugarritzko eragina izango du berriak. Neskalaguna, maitalea, lankideak, lagunak nahiz ezagunak galduko ditu Jonek. Ondorioz, denbora baterako, Madrildik Euskal Herri- ra etortzea erabakiko du.

Ama gaixorik dauka Gasteizen, ebakuntza larri baten ondoren osatu ezinik dabil. Jon izango da aurrera egiten lagunduko diona, aita eta izebekin batera. Jonek bere iragana gogoratuko du gurasoen etxean dagoen bitartean; gaztaroa batez ere, Iparraldeko bizimodua,

garai bateko bere ideologia... Behin baino gehiagotan etorriko zaio gogora Elena bere emazte ohia, errespetu izugarria ematen dio harekin elkartzeak. Napal gaztetako lagunminarekin topatuko da behin kalean. Jonen egungo pentsamenduetatik oso urrun, minbi-ziarekin atera berri da kartzelatik. Elkar ikusi eta handik egun gutxi barru hilko da. Napal hil eta gero kalean haren omenezko ekitaldiak izango dira. Jonen gurasoen etxean, aldiz, lehergailu baten eztanda.

Madrilera itzuliko da gertaeraren ostean. Komunikabideek zabaldu dute Gasteizen gertatutakoa eta esku zabalik hartuko dute itzuleran guztiek. Neskalaguna eta maitalea berreskuratu ditu, baita lagunak ere. Anarekin ezkondu eta bizitza lasai baten jabe izatea da bere etorkizun hurbileko helburua; maitalea alboan duela, beti ere.

Sinboloz betetako eleberria. Zinemagileak izaki, zine zuzendari askoren aipamenak ageri dira eta batez ere Peckinpah-renak. Bizitzaren alderdi ilunen bat agertzen den bakoitzean aipatzen da zinemagile estatubatuarren izena, Sasplugas lagunarekin izandako elkarriketetan.

Gustura irakurtzen da liburua, nahiz eta espero gabeko momentuan amaitzen den kontakizuna. Agian hankamotz geratzen da bukaera. Protagonista Madrilera itzuli, bizimodu orekatua aurkitu, eta badirudi, aurreko guztia iragan bihurtu dela.